

KONTZERTUAK SOINUENEAN

# UDABERRIKO KONTZERUA

2016ko apirilaren 23an - 18:30etan Soinuenean - 5 euro

## XEREMIERS DE MURO ES REGUINYOL



Dena Muroko Helduen Tailerrak gaita, txirula eta danbolina jotzeko ikastaroak antolatu zituenean hasi zen. 1999ko urria zen.

Eskolako lehen irakaslea Rafael Moll izan zen eta gaur egun "Es Reguinyol" elkarteko partaide sortzaileak garen asko berekin hasi ginen

nota batzuk afinatu nahian eta musika baino zarata gehiago egiten, baina irmotasunak saria izaten du eta asko saiatzearen poderioz, eta bizilagunak behin baino gehiagotan izorratuz, orduko adin ezberdinetako pertsona talde hartakoek gaur egun soinu-tresna hauek Muro herrian urte askoan

jarraipena izatea ahalbidetzen dugu.

Hasiera hartatik hona jende asko ibili da eskolan, baina begiak ireki eta elkarte batean batu beharra ikusarazi ziguna zera izan zen: 2003an maisurik gabe geratu ginela. Maisuaren faltan eskolak bertan behera geratu ziren eta noraezean geratu ginen, bai urte gehien generamatzanak, baita hasiberriak ziren ikasle haiek ere. Etorkizun beltz hari aurre egiteko asmoarekin sortu zen "Es Reguinyol" elkartea, ikasitakoa galdu ez eta ondorengoei emateko asmoarekin.

### 'Xeremiers'. Zer dira?

Izen hori, 'Xeremiers', edo 'Colla de Xeremiers' deitzen zaio Mallorcako herri musikako talde instrumental adierazkorrena izan daitekeenari. Kataluniako 'mitja cobla' delakoaren oso antzekoa da.

Xeremia jole eta 'flabioler' banak osatzen dute oinarriz, hau da, xeremia, uharteko berezko kornamusa edo xirolarrua (labur esanda zakua duen gaita), jotzen duena eta, gure txistularien antzera, txilibitua eta danbolina jotzen dituen. Flabiol hauek, txistuak ez bezala, bost zulo dituzten flautak dira, eta danbolina ere, euskaldunona baino txikixeagoa, eskutik zintzilik eraman ohi dute.

Soinu alai eta distira handikoa, Mallorcan oso sustraitua, dantza eta festa gehientsuenetako musika jo dutenak izan dira, aspaldidanik, Xeremiers hauek. Eta, Europa mendebalde guztian bezala, XX. mendean beharakada handia jasan bazuen ere, 70eko hamarkadatik hona bultzada berria hartu du. Orduetik hona ikerlari, instrumentu egile eta jole belaunaldi berriak martxan dira. Giro horretatik sortu dira soinu-tresna hauek jotzen ikasteko eskolak eta horietatik ugartzen ari diren taldeak.

ETA GOIZEAN

### EMANALDI DIDAKTIKOA

Mallorcako Xeremiers

Haurrei doan eskainiko dieten emanaldi honetan Mallorcatik etorritako Xeremiers de Muro - Es Reguinyol taldeko kideek beraien herriko doinu eta erritmoak jotzeaz gain hango soinu-tresna herrikoiak erakutsiko dituzte.

Lekua: SOINUENEA  
Tornola kalea, 6  
20180 Oiartzun

Eguna: 2016-04-23

Ordua: 11:00

# HERNANI MUSIKA ESKOLA PUBLIKOKO TXISTULARI TALDEA

Hernaniko musika eskolan txistu taldea 1986an jarri zuen martxan orduan bertako txistu irakasle zen Juan Mari Beltranek, urte hartako sanjuanetan atera zelarik aurreneko aldiz kalera. 1998an berriz, Iñaki Egurenek hartu zuen txistularien gidaritza, eta geroztik taldea sendotzen eta hazten joan da, gaur egun hogeitabi bat txistulari biltzen dituelarik nagusienean, txikienean beste zazpi haur ere ari dira eta.

Urte luze hauetan herriko makina bat festa eta ekitalditan parte hartu du, baita herritik kanpora ere, urtean 70 saiotik gora egitera iritsiz. Aipatzekoak zaizkigu, besteak beste, Hernaniko sanjuanak, inauteriak edo eguberriak, dantzari festa eta txalapartarena, hala nola aspaldiko urteetan Zaldibiako ardiki egunean edo Itziarko erromeria egunean taldeak duen parte hartzea. Bestalde, 2000 urte ingurutik, udaletxeko arkupeetan

hiru-lau kontzertu eskaintzen ditu ikasturtean barrena, askotan eskolako beste taldeekin bat eginaz (saxofoi taldea, trikitilariak, abesbatza,...). Horrek guztiak, taldeak oso erreperatorio zabala landu izana ekarri du, eskolako txistulari amateurren taldea dela kontutan izanda. Oraingoan, ibilbide horren laburpentxo bat eskaintzera datoz Oiartzuna, kontzertu baten bidez, txistu eta danbolin hotsean noski.



## AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Elizaldeko Ibargain elkartearen izango da, Oiartzungo Aialde kalean. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Afaltzeko lekua gordetzeko Soinuenera deitu eta izena ematea komeni da.

**Afaria + Kontzertua: 20 euro**

laguntzaileak:

